



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Donostiako Orfeoiak, Musikene Orkestrak eta lau ahots bakarlarik Antonin Dvořáken *Stabat Mater* interpretatuko dute

- Kontzertua José Antonio Sáinz Alfaroren musika-zuzendaritzapean gauzatuko da eta Tanya Durán Gil, Cristina del Barrio, Beñat Egiarte eta David Cervera izango dira ahots bakarlariak.
- Arriaga Antzokiak konpositore txekiarraren maisulana eta XIX. mendeko koru-lan handietako bat den obra honen emanaldi bakarra hartuko du azaroaren 21ean, igandean, 19:00etan.

Bilbo, 2021eko azaroaren 17a. Goi mailako musika-hitzordua igandean Arriaga Antzokian. **José Antonio Sáinz Alfaroren** musika-zuzendaritzapean punta-puntako bi talde arituko dira, **Donostiako Orfeoia** eta **Musikene Orkestra**, eta haiekin batera **Tanya Durán Gil, Cristina del Barrio, Beñat Egiarte** eta **David Cervera** abeslari bakarlariak, ***Stabat Mater*** interpretatzeko, zehazki **Antonin Dvořák** txekiar egilearen bertsio paregabea, benetazko maisulana. Konpositorearen lanik ederrenetako bat eta kalitate gorenekoa izateaz gain, XIX. mendeko koru-lan handienetakoa da.

20 bertsotan Ama Birjinak gurutzearen ondoan pairatu bide zuen sufrimendua deskribatzen duen XIII mendeko poema da *Stabat Mater*. Mendez mendez, asko izan dira poemari heldu dioten musikagileak; besteak beste, Palestrina, Vivaldi, Rossini eta, berriki, K. Jenkins.

Dvořáken lanak 10 mugimendu ditu, zoragarriki askotarikoak eta, aldi berean, erabat koherenteak. 1876. urtean hasi zen obra hori konposatzen, Josefa alabaren oroimenez. 1877an bukatu zuen partitura, beste bi seme-alaba galdu ondoren. Dvořáken obra sakra garrantzitsuena den lan honek musikagilearen oinazearen pisu izugarria du, eta ez da ohikoa izaten abesbatzen kontzertuetan, batez ere iraupenagatik eta adierazten duen tristuragatik. Jatorrian, kontzertu bertsioan interpretatua izateko sortua izan zen, eta ez liturgia erlijiosoan. Dvořáken *Stabat Mater* izaera meditatiboa eta orkestrazio gardena duen obra da, kromatismo ugarirekin.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 eta 36 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Stabat Mater

Zuzendaritza musikala: **José Antonio Sáinz Alfaro**

Orkestra: **Musikene Orkestra**

Abesbatza: **Donostiako Orfeoia**

Sopranoa: **Tanya Durán Gil**

Mezzosopranoa: **Cristina del Barrio**

Tenorra: **Beñat Egiarte**

Baxua: **David Cervera**

Informazio gehiago:

Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus